



**LEGAZPIKO
UDALA**



**LEGAZPIKO UDALEAN
EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO
PLAN ESTRATEGIKOA
2024-2027
VII. plangintzaldia**

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. PLANAREN AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA	3
<i>Lege-oinarriak</i>	3
<i>Lanpostuen zerrenda, hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun-epeak</i>	3
3. PLANA DISEINATZEKO METODOLOGIA	6
4. PLANA DISEINATZEKO URRATSAK	6
5. 2024-2027 EPEALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA	7
<i>5.1. Helburua</i>	7
<i>5.2. Erronka nagusiak</i>	7
<i>5.3. Oinarrizko irizpideak</i>	7
<i>5.4. Planaren egitura: kudeaketa eta erabilera</i>	8
6. PLAN ESTRATEGIKOA OSATUKO DUTEN ADIERAZLEAK	11
<i>1. ardatza. KUDEAKETA</i>	12
<i>2. ardatza. ERABILERA</i>	15

1. SARRERA

Udalek bost urtean behin, euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa onartzen ohi dute, Eusko Jaurlaritzak finkatutako gidalerroen arabera. Azkenekoa, VI. plangintzaldiari (2028-2022) zegokiona, 2018ko abenduaren 26an onartu zuen Legazpiko Udaleko osoko bilkurak.

Plan estrategiko hori urtebetez luzatu zen eta orain, Eusko Jaurlaritzak proposatutako metodologia berria (KEMEN) erabiliz, VII. plangintzaldiari dagokion plan estrategikoa egin du Legazpiko Udalak, 2024-2027 epealdirako.

Plan estrategikoa onartuta, urteko kudeaketa-planak egin ohi izan ditu Udalak. Hortaz, urtea aurrera badoa ere, aurtengo lehentasunak zehaztuko dira eta horien arabera diseinatu eta garatuko da urteko kudeaketa plana.

2. PLANAREN AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

1982an Euskararen normalizazio-legea onartu eta gero hainbat lege, dekretu eta araudi onartu dira, administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko xedearekin.

Lege-oinarriak

- 10/1982 legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa
- 6/1989 legea, uztailaren 6koa, euskal funtzio publikoari buruzkoa
- 2/2016 legea, apirilaren 7koa, Euskadiko toki erakundeei buruzkoa
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- 22/2022 legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.

Legazpiko Udalak 1998an onartu zuen bere lehen erabilera-plana, eta, horrezaz gain, xede berarekin beste hainbat neurri hartu izan ditu; horietako garrantzitsuena 2010ean onartu zuen “Legazpiko udalerrian hizkuntza ofizialen erabilera arautzeko udal ordenantza” (2010/11/18ko GAO).

Lanpostuen zerrenda, hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun-epeak

Legazpiko Udalak 1990ean lanpostuen hizkuntza eskakizunak finkatu zituen eta langileak euskalduntzeko prozesuari ekin zion. Prozesu horri langileak lanean trebatzearena jarraitu zion.

Gaur egun hauxe da egoera hizkuntza eskakizunei eta derrigortasun-eppei dagokienez:

ZERBITZUA	Lanpostuak	DERRIGOR-TASUNA	Lanpostuaren HE				EGIAZTATUTAKOA					
			4HE	3HE	2HE	1HE	4HE	3HE	2HE	1HE	0	
ALKATETZA	Komunikazio teknikaria	2016-06-29		x				x				
IDAZKARITZA	Idazkaria	2001-12-31	x				x					
	Idazkaritzako administraria	1992-09-30		x				x				
	Euskara teknikaria	-	x				x					
	Artxibozaina	1994-09-30		x				x				
HAZ	Administraria	2016-12-31		x				x				
	Administrari lagun. 1	2001-10-26		x				x				
	Administrari lagun. 2	2016-10-26		x				x				
OGASUNA	Kontuhartzailea (hutsik)	2001-12-31	x									
	Ekonomialaria	2001-12-31	x					x				
	Diruzaintzako administraria	1991-09-30			x			x				
	Diru-bilketako administraria	2000-02-28		x				x				
	Enplegu sustatzailea	1992-09-30		x				x				
	Informatikako teknikaria	2001-01-31		x				x				
	Informatikako teknikaria	2023-11-21		x				x				
HIRIGINTZA (bulegoa)	Arkitektoa	2009-02-28	x				x					
	Arkitekto teknikoa	1994-09-30		x					x			
	AOT	2002-09-18		x			x					
	Nekazaritzako teknikaria	2006-05-31		x				x				
	Delineatzailea	2001-12-31			x					x		
	Administraria	1992-09-30		x				x				
HIRIGINTZA (obra taldea)	Obra arduraduna	2001-12-31			x			x				
	Mantentze-laneko ofiziala	-			x			x				
	Peoi igeltseroa	-				x					x	
	Mantentze-laneko ofiziala	1991-09-30			x				x			
	Operario-dunper txoferra	-				x					x	
	Lan askotariko peoia	-				x					x	
	Zeregin askotako ofiziala	-				x			x			
	Igeltsero ofiziala	-				x		x				
	Kamioi gidaria	-				x				x		
	Mantentze-laneko ofiziala	-				x			x			
	Zeregin ezberdinetako peoia	-				x					x	
	Mendiko peoia	1991-09-30			x					x		

	hutsik		Dagokien HE dute		HE bat beherago		HE bat edo + gorago
--	--------	--	------------------	--	-----------------	--	---------------------

ZERBITZUA	Lanpostua	DERRIGOR-TASUNA	Lanpostuaren HE				EGIAZTATUTAKOA					
			4HE	3HE	2HE	1HE	4HE	3HE	2HE	1HE	0	
HIRIGINTZA (kale garb.)	Kale garbitzailea 1	-				X						X
	Kale garbitzailea 2	-				X					X	
	Kale garbitzailea 3	-				X			X			
	Kale garbitzailea 4	-				X					X	
GIZARTE ZERBITZUAK	Gizarte langilea 1	1993-09-30		X			X					
	Gizarte langilea 2	2023-11-21		X				X				
	Gizarte langilea 3	2011-01-31		X				X				
	Ordenantza	1992-12-31				X					X	
GAZT. ETA HEZK.	Gazteria eta Hezkuntza teknikaria	1992-09-30		X				X				
KULTURA	Kultura teknikaria	1991-09-30		X				X				
	Liburuzaina	2001-01-31		X				X				
	Liburutegiko laguntzailea- administ.	2004-02-28		X				X				
	Kult., Hezk., eta Gazt. laguntzailea	2014-11-30		X				X				
KIROLA	Kirol teknikaria	2001-12-31	X				X					
	Mantentze-laneko ofiziala	1996-12-31			X			X				
	Harreralaria	1997-06-30			X			X				
UDALTZAIN- GOA	Ofizialordea	2006-05-31		X				X				
	Agente Lehena	1992-09-30		X				X				
	Udaltzaina 1	1994-09-30			X				X			
	Udaltzaina 2	2001-12-31			X			X				
	Udaltzaina 3	1992-09-30			X				X			
	Udaltzaina 4	1992-09-30			X			X				
	Udaltzaina 5	1992-09-30			X				X			
	Udaltzaina 6	1994-09-30			X				X			
	Udaltzaina 7	2007-12-31			X				X			
	Udaltzaina 8	2007-12-31			X				X			
Udaltzaina 9	2023-11-21			X					X			
EUSKALTEGIA	Zuzendaria	-	X				X					
	Irakaslea 1	-	X				X					
	Irakaslea 2	-	X				X					
GUZTIRA	63		9	24	17	13	9	30	13	5	5	

1	hutsik	41	Dagokien HE dute	8	HE bat beherago	13	HE bat edo + gorago
---	--------	----	------------------	---	-----------------	----	---------------------

Laburbilduz,

- Derrigortasun-indizea: % 68,76
- Derrigortasun-data izan behar duen lanpostu-kopurua: 43
- Derrigortasun-data duen lanpostu-kopurua: 46
- Derrigortasun-data eta dagokion HE edo goragokoa duten lanpostuak: 42
- Derrigortasun-data bai baina dagokion HE ez: 3 lanpostu
 - Ekonomialearia: 2025eko urtarrilean hartuko omen du erretiroa
 - Delineatzailea: 2025eko udazkenean hartuko omen du erretiroa
 - Arkitekto teknikoa: hurrengo plangintzaldian hartuko du erretiroa

3. PLANA DISEINATZEKO METODOLOGIA

Euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategiko hau diseinatzeko, Legazpiko Udalak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzak VII. plangintzaldirako proposatu duen metodologia erabili du: KEMEN (kudeaketa eta erabilera markoa euskararen normalizaziorako). Metodologia horren arabera erakundean euskararen kudeaketa eta erabilerari dagozkion 48 adierazle ebaluatzen dira: 20 adierazle kudeaketaren ardatzaren baitan eta 28 erabileraren ardatzaren baitan. 48 adierazle horietatik 14 guztiok ebaluatu beharrekoak dira, kudeaketa ardatzeko 5 adierazle eta erabilera ardatzeko 9.

4. PLANA DISEINATZEKO URRATSAK

Ezer baino lehen udalaren sistema egituratua sortu da. Hala, Zuzendaritza taldea izango da plan estrategikoaren jarraipena egingo duena eta hiru hilean behin egingo du hori.

Planaren diseinuan eta jarraipenean parte hartuko dutenak:

- Zuzendaritza taldea bera
- Hiru arlotako lantaldeak: Herritarrak, Lurraldea eta Antolaketa
- Langileen ordezkariak
- Oro har, langile guztiak

Emandako urratsak:

- Komunikazioa: urtarrilean eta otsailean hainbat bilera egin dira udaleko talde desberdinekin. Guztira 8 izan dira egindako bilerak; horietan plan estrategiko berriaren ezaugarriak azaldu zaizkie talde eta langileei, erabiliko metodologia, autodiagnostikoa, jarraipena,

- Autodiagnostikoa (kuantitatiboa): otsailaren 14an bidali ziren autodiagnostikoa egiteko galdetegian (langileenak eta erakundekoa) eta haiek betetzeko epea amaituta (otsailak 19), hasierako egoeraren adierazleak lortu dira.
- Autodiagnostikoa (kualitatiboa): datu kuantitatiboez gain, egindakoaz hausnartu da: orain arte lortutakoa, egungo egoera, indarguneak eta hobetu daitezkeenak.
- Plan estrategikoa landu: helburuak, lehentasunak, adierazleak,..... Ekarpenak egiteko tartea eskaini eta emaitzaren berri eman.
- Plan estrategikoa aurkeztu: Zuzendaritza taldean, hiru arlotako lantaldetan, langileen ordezkariari eta langile guztiei.
- Plan estrategikoa Gobernu Batzordean onartu.

5. 2024-2027 EPEALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA

5.1. Helburua

Legazpiko udalean euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza normala eta orokorra izatea eta, horrela, herritarrek udalarekiko harremanetarako aukeratutako hizkuntza ofizialean izateko duten eskubidea bermatzea.

Horrezaz gain jauzi adierazgarria egin nahi da kudeaketa arloan eta horri begira hainbat neurri hartuko dira plangintzaldi honetan.

5.2. Erronka nagusiak

- Herritarrek Udalarekin dituzten harremanetan euskaraz gehiago erabiltzea. Lehenengo hitza euskaraz egiteaz gain, udal langileek eta udal zerbitzuak eskaintzen dituzten langileek, oro har, jarrera proaktiboa izatea herritarrekin harremanak euskaraz izateko, beti ere herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuz.
- Lan-harremanak euskaraz izatea, euskaraz egin daitekeena euskaraz egitea, eta elebitasuna gainditzea.
- Erabilera-plana kudeatzeko sistema osatzea eta egonkortzea. Langileak eta arduradun politikoak planeko helburuetan inplikatzeko, eredugarriak izatea.

5.3. Oinarrizko irizpideak

Plan estrategikoan ondorengo aginte-taulako adierazleak jasoko dira eta horien jarraipena egingo da:

1. KUDEAKETA

1.1. Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egingo da.

1.2. Lidergoa: Udaleko kideak, politiko zein teknikoek, eredu izango dira euskarari dagokionez eta jarrera proaktiboa izango dute.

1.3. Langileak: langile berriei harrera linguistikoa egiteko protokoloa landuko da.

1.4. Hizkuntza klausulak: hizkuntza irizpideak txertatuko dira kontratuetan eta dirulaguntzetan eta horien jarraipena egingo da.

2. ERABILERA

2.1. Zerbitzu-hizkuntza: langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egingo diete herritarrei eta eskatzen dutenei euskaraz emango diete zerbitzua, ahoz, eta erantzungo zaie idatziz euskaren aldeko hautua egin duten herritarri.

2.2. Lan-hizkuntza: euskara izango da ohiko lan-hizkuntza, ahoz zein idatziz.

2.3. Kanpo-harremanak: herritarrekin, elkarteekin, erakundeekin,.... euskara hutsezko harremanak izatea bultzatuko da.

2.4. Sortze-hizkuntza: sortze-hizkuntza euskara izatea sustatuko da, batik bat euren lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileen kasuan.

5.4. Planaren egitura: kudeaketa eta erabilera

Plan estrategiko berria KEMEN metodologiak proposatutako egiturari jarraituta antolatu da, bi ardatzetan:

- KUDEAKETA. Euskara plana nola gestionatzen den jasotzen da hemen. Plana bultzatzeko zein egitura duen, departamendu bakoitzak plana barneratuta ote daukan eta bultzatzen duen, planaren jarraipena nola egiten den, langileei plana nola komunikatzen zaien, langileek zer parte hartze duten, enpresak kontratatzean hizkuntza irizpiderik jartzen zaien eta abar.

Honako arloak hartzen ditu: Euskararen kudeaketa orokorra, Lidergoa, Langileak, Hizkuntza Gaitasuna, Euskararen erabilera sustatzeko strategiaren komunikazioa eta Hizkuntza klausulak.

- ERABILERA. Udalak zein hizkuntzatan funtzionatzen duen jasotzen da hemen. Bai ahoz eta bai idatziz, udal barruan zein kanpoko erakunde, eragile eta herritarrekin duen harremanetan. Eta baita, idatziak zein hizkuntzatan sortzen diren.

Honako arlo hauek hartzen ditu:

- Zerbitzu-hizkuntzaren barruan: Irudia eta Herritarrekiko harremanak.
- Lan-hizkuntzaren barruan: Barne harremanak, Kanpo harremanak, Prestakuntza, Baliabide Informatikoak eta Sortze-hizkuntza



5.4. Diagnostika

5.4.1. Galdetegiak

Diagnostika egiteko 48 adierazle erabili dira 5.3 puntuari adierazitako bi ardatzetan banatuta: Kudeaketan, 20 adierazle eta Erabilera 28 adierazle.

48 adierazleen informazioa jasotzeko bi galdetegi erabili dira: Langileentzako galdetegi eta Erakundearen galdetegi. Langileentzako galderak pertzepzioz betetzekoak ziren eta Erakundearen galdetegikoak batzuk pertzepzioz eta beste batzuk behaketaz, datuak jasota.

Guztira langileen 52 galdetegi jaso dira eta erakundearen galdetegiko galderak nagusiki Euskara sailetik erantzun dira, batzuetan arloetako teknikariek kontrastatuta.

Tauletan jasotako kopuruak bi galdetegi horietatik jasotakoak dira.

5.4.2. Plana osatuko duten adierazleen aurreikuspenak proposatzeko irizpideak

Metodologia hau eta kudeaketa sistema, berriak dira Legazpiko Udalarentzat. Horregatik, adierazleen aurreikuspen zehurrak egin nahi dira, helburuak lorgarriak izan daitezen eta baita neurgarriak eta behar bezalako jarraipena egiteko modukoak ere.

Nahitaez neurtu beharreko 14 adierazle hartu dira eta gainerako 34 adierazletatik 22 adierazle hautatu dira. Hortaz, 36 adierazle osatuko dute Legazpiko Udalaren plan estrategikoa. Horietatik 15 adierazle Kudeaketa ardatzekoak dira eta 21 erabilera ardatzekoak.

Neurtuko diren adierazleak banan-banan aztertu dira, definizioaz ondo jabetuz aurreikuspen egokiak proposatzeko.

Ardatzez ardatz eta arloz arlo aztertu dira aukeratutako adierazleak. Ardatz bakoitzeko erronkak planteatu dira eta arloz arlo egungo egoera, egindakoak, indarguneak, zer hobetuak eta helburu estrategikoak zehaztu dira. Ondoren arlo horretako adierazle mailako helburuak proposatu dira.

**LEGAZPIKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA
NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA OSATUKO DUTEN
ADIERAZLEAK
VII. PLANGINTZALDIA
2024-2027**

Kodea		Egoera %	Aurreikus. %	Aldea %
	LEGAZPIKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA, 2024-2027			
1	KUDEAKETA	31,60		
1.0.1	EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA <ul style="list-style-type: none"> Euskara plana egiteko prozesuan arduradun politikoak eta udal langileak kontuan izan Euskara plana kudeatzeaz arduratuko den organoa izendatu Euskara zeharlerrotzat hartu Udalaren ohiko jardunean 	15		
1.0.1.1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du <ul style="list-style-type: none"> Planaren jarraipena egingo duen organoa izendatu Kudeaketa planez arduratuko den taldea osatu 	0	30	+ 30
1.0.1.2 *	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta Hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da <ul style="list-style-type: none"> Jarraipena egiteko sistema eratu Hizkuntza-irizpideak landu eta onartu BIKAIN kanpo-ebaluazioa plangintzaldiaren azken urtean 	25	35	+ 10
1.0.2	LIDERGOA <ul style="list-style-type: none"> Ordezkarari politikoek lidergotza hartzea euskararen gaietan ere. Ordezkarari politikoak eta udal langileak proaktiboak izatea euskara gaietan 	14,50		
1.0.2.4 *	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean. <ul style="list-style-type: none"> Jarraipena egin 	16,50	30	+ 13,50
1.0.2.5 *	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezela. <ul style="list-style-type: none"> Erabilera plana eta hizkuntza-irizpideak azaldu eta aldeko jarrera landu 	25	35	+ 10
1.0.3	LANGILEAK <ul style="list-style-type: none"> Plan estrategikoa eta hizkuntza irizpideak egiteko prozesuan langileen parte-hartzea sustatzea Onartutako planak eta hizkuntza irizpideak behar bezala komunikatzea 	69,90		

	<ul style="list-style-type: none"> Langileek hizkuntza irizpideak nola bete behar dituzten argi izatea eta haiek betetzen dituztela zaintzea. 			
Kodea		Egoera	Aurreikus.	Aldea
1.0.3.7	<p>Langileei ematen zaie erakundeko plan estrategikoari, kudeaketa-planei eta hizkuntza-irizpideei buruzko informazioa, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.</p> <ul style="list-style-type: none"> Plana ondo komunikatu Harrera linguistikoa langile berriei: hizkuntza-irizpideak ongi azaldu 	65,20	75	+ 9,80
1.0.3.8 *	<p>Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte</p> <ul style="list-style-type: none"> Jarraipena egin 	81,80	85	+ 3,20
1.0.3.10	<p>Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan</p> <ul style="list-style-type: none"> Parte-hartzea igo Ekintza bereziak abian jarri 	25	35	+ 10
1.0.3.11	<p>Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz.</p> <ul style="list-style-type: none"> Langileen gogobetetzea neurtzea Balorazioa egin 	73,60	80	+ 6,40
1.0.4	<p>HIZKUNTZA-GAITASUNA</p> <ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza eskakizunekin zorrotzak izaten jarraitzea Langileei euskaraz lan egiteko tresnak eskaintzea: euskarazko aplikazio informatikoak, itzultzaile neuronala,... 	87,70		
1.0.4.12	<p>Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko</p> <ul style="list-style-type: none"> Langileen beharrak jasotzea eta baliabideak eskaintzea 	84,90	90	+ 5,10

1.0.4.13	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko <ul style="list-style-type: none"> ○ Langileen beharrak jasotzea eta baliabideak eskaintzea 	78,20	85	+ 6,80
Kodea		Egoera	Aurreikus.	Aldea
1.0.5	EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA <ul style="list-style-type: none"> • Planen berri herritarrei eta herriko elkarteei ematea • Planak Udalaren web-orrian agerian jartzea • Herritarrak udalarekiko harremanetan euskara erabiltzera gonbidatzea eta bultzatzea 	30		
1.0.5.15	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritarrei eta gainerako interes-taldeei. <ul style="list-style-type: none"> ○ Herritarrei Udalaren asmoen berri ematea 	25	35	+ 10
1.0.6	HIZKUNTZA-KLAUSULAK <ul style="list-style-type: none"> • Kontratueta, irizpideen ereduak bilduma bat osatzea • Zerbitzu-kontratueta batik bat, hizkuntza-klausulak txertatzen direla, horien jarraipena egiten dela eta betetzen direla bermatzea. 	32,50		
1.0.6.17	Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira. <ul style="list-style-type: none"> ○ Prozedura betetzea kontratu-mota guztietan 	100	100	-
1.0.6.18	Dirulaguntzetan eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira <ul style="list-style-type: none"> ○ Prozedura betetzea dirulaguntzetarako 	100	100	-
1.0.6.19 *	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratueta hizkuntza-klausulen betetze-mailari <ul style="list-style-type: none"> ○ Kontratueta arduradunak jarraipena egitea ○ Zerbitzu-kontratu nagusienak identifikatu eta jarraipena egiteko modua adostu 	0	20	+ 20
1.0.6.20	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari. <ul style="list-style-type: none"> ○ Dirulaguntzaren arduradunak jarraipena egitea: jarraipenerako modua adostu 	25	35	+ 10

Kodea		Egoera	Aurreikus.	Aldea
2	ERABILERA			
2.1	ZERBITZU-HIZKUNTZA	82,70		
2.1.1	IRUDIA <ul style="list-style-type: none"> • Irudiaren elementu guztiak aztertu eta behar direnak egokitzea • Euskarari lehentasuna emateko irizpideak adostea eta finkatzea 	85,00		
2.1.1.21	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude. <ul style="list-style-type: none"> ○ Jarraipena egin 	100	100	-
2.1.1.22	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude <ul style="list-style-type: none"> ○ Jarraipena egin 	100	100	-
2.1.1.23	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan. <ul style="list-style-type: none"> ○ Jarraipena egin 	50,00	65	+ 15
2.1.1.24	Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak <ul style="list-style-type: none"> ○ Jarraipena egin 	100	100	-
2.1.2	HERRITARREKIKO HARREMANAK <ul style="list-style-type: none"> • Idatzizko komunikazioa hobetzea eta Udalarekin harremana euskaraz izan duten edo euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzutea. • Ikastaroen eskaintza aztertu eta euskararen erabilera areagotzea. 	82,10		
2.1.2.25 *	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen <ul style="list-style-type: none"> ○ Langileekin hizkuntza-estrategiak lantzea herritarrek euskara gehiago erabiltzeko: estres linguistikoa eta eskaintza aktiboa 	78,40	85	+ 6,60

	<ul style="list-style-type: none"> ○ Zailtasunak eta arazoak identifikatu ○ Udaltzaingoarekin etengabeko prestakuntza eta ahalduntzea hizkuntza-gaitasunean eta hizkuntzen kudeaketan 			
Kodea		Egoera	Aurreikus.	Aldea
2.1.2.26 *	<p>Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Herritar euskaldunari zerbitzua ahoz euskaraz ematea 	88,80	90	+ 1,20
2.1.2.27 *	<p>Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Udalak eskaintzen dituen ikastaro guztietan euskararen presentzia areagotzeko neurriak hartzea ○ Hizkuntzaren erabilerari buruzko kezak, zailtasunak jaso. Irtenbideak bilatu. . 	50,00	60	+ 10
2.1.2.28 *	<p>Herritarrei euskaraz edota bi hizkuntzatan bidaltzen zaizkie dokumentuak</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Hizkuntza irizpideetan jaso eta langileekin landu gaia 	95,00	100	+ 5
2.1.2.29 *	<p>Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Jarraipena egin eta identifikatutako zailtasunak aztertu eta gainditzeko proposamena egin ○ Erregistroan eta espedienteen kudeaketarako aplikazioan hizkuntza-hautua modu egokian jaso eta bideratu 	100	100	-
2.1.2.30	<p>Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Herritarrak sentsibilizatu eta motibatu euskara hautatzeko: kanpaina zehatzak egin herritarrek euskara hautatu dezaten Udalarekiko harremanetan 	53,70	60	+ 6,30
2.1.2.31	<p>Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Herritarrak sentsibilizatu eta motibatu euskara hautatzeko (kanpaina zehatzak) ○ Udalak hizkera erraza eta egokia erabiltzen duela bermatzea 	50,00	60	+ 10
2.2	LAN-HIZKUNTZA	56,10		
2.2.1	<p>BARNE-HARREMANAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irizpide berriak lantzea eta modu argian azaltzea, laneko esparru guztietan euskararen erabilera areagotzeko 	49,80		
2.2.1.32	<p>Lan-bilerak euskaraz egiten dira</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Benetako egoera ezagutu eta egiten ez den lan-bileretan euskararen erabilera sustatu 	33,40	50	+ 16,60+ 5,50

Kodea		Egoera	Aurreikus.	Aldea
2.2.1.33 *	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da <ul style="list-style-type: none"> ○ Neurketak / behaketak egin 	64,50	70	
2.2.1.35 *	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira <ul style="list-style-type: none"> ○ Jarraipena egin 	89,00	95	+ 6
2.2.1.38	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago <ul style="list-style-type: none"> ○ Jarraipena egin 	93,40	96	+ 2,60
2.2.2	KANPO-HARREMANAK <ul style="list-style-type: none"> • Beste herri administrazioekiko harremanetan hutsuneak non daude aztertzea eta erabilera handitzea • Administrazioekiko harremanetan bezala, elkarte eta enprekin euskarazko harremanak sustatzea 	81,40		
2.2.2.39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana. <ul style="list-style-type: none"> ○ Beste administrazioekin euskaraz jarduteko neurriak hartzea ○ Irizpide garbiak izan eta ahaldundu ○ Zailtasunak non dauden identifikatu ○ Beste administrazioekin (sailekin,...) adostasunak lortu 	75,20	80	+ 4,80
2.2.2.40 *	Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota bi hizkuntzetan bidaltzen zaizkie dokumentuak. <ul style="list-style-type: none"> ○ Beste administrazioekin euskaraz jarduteko neurriak hartzea ○ Irizpide garbiak izan eta ahaldundu ○ Zailtasunak non dauden identifikatu ○ Beste administrazioekin (sailekin,...) adostasunak lortu 	90,00	95	+ 5
2.2.3	PRESTAKUNTZA			

2.2.3.43	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei. <ul style="list-style-type: none"> ○ Neurriak hartzea prestakuntza euskaraz izateko ○ Prestakuntza-planean hizkuntza-irizpideak txertatu 	0	20	+ 20
Kodea		Egoera	Aurreikus.	Aldea
2.2.4	BALIABIDE INFORMATIKOAK <ul style="list-style-type: none"> • Erabiltzen diren baliabideak aztertu eta jaso: euskaraz daudenak identifikatu • Langileek euskaraz dauden aplikazioak euskaraz erabil ditzaten sustatu 	58,80		
2.2.4.46	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak. <ul style="list-style-type: none"> ○ Baliabide egokiak eskaintzea langileei. ○ Aplikazio informatikoen inbentarioa egin eta eguneratuta mantendu 	61,60	70	+ 8,40
2.2.4.47	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak. <ul style="list-style-type: none"> ○ Langileen motibazioa elikatzea. 	56,00	65	+ 9
2.2.5	SORTZE-HIZKUNTZA	65,70		
2.2.5.48 *	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak. <ul style="list-style-type: none"> ○ Barne-dokumentuetan euskarazko produkzioaren alde egin. 	65,70	70	+ 4,30

*	Eusko Jaurlaritzaren Aginte Panelekoak
---	--